



MAILA

4

ZAILA

ARTZAMENDIREN ITZULIA *Itsasu*

*Ibilaldi arras ederra,  
ibiltari trebeentzat.  
Artzamendi ezagutuko  
duzue. Leku bikaina da.  
Bista zoragarriak eta  
paisaia aniztasuna  
eskaintzen ditu.  
Erreferentziak  
denborak ibiltarientzat.*

**Abiatzea: Ateka / Sanoki aparkalekua.**

Helbidea: karrika nagusia, plazan ezkerreko bidea segitu, ehun metroan eskuin: aparkalekuko sartzea. (Ateka/Sanoki gelaren beheko aldean). **D**

Aparkalekutik atera eta eskuinera joan. **628743 - 4798876**

Errekaraino zuzen jautsi (eta erreka trebesatu) **1 628661 - 4798503** Basaburuko errota pasatu (Larrondoa).

Atharri kaskoko bidea segitu (gaztainadi ederra). Bost bideko kurutzera heldu. **2 628745 - 4798274**

Parean den bidetik segitu. Lehenik pentzeak eta gero oihan bat trebesatzen ditu. Bide mundrunatu batera heltzen da. Eskuinera joan. Zuzen segitu, Atekgaitzeko errepideraino. **3 629428 - 4798074**

Eskuinera joan, zinez ikusi beharreko bide eta leku eder horretatik. Errobiko arroilaren luzeran ibili, Latseko auzoraino.

Zubira heltzean **4 629657 - 4796860**, zubia ezkerrean utzi eta zuzen joan, Berandotzeko errepidetik.

Heleteneko bidearekin bidegurutzean, « Atharri » ibilaldia utzi eta zuzen segitu. Bide mundrunatutik ibili, 2 km luzez. Ur-bilketa gunea pasatu. Eta patarraren gainaldean den bidexka baten bidegurutzeraino joan **5 628529 - 47955167**.

Ezkerrera joan, lurrezko bidetik. Seinaleak segitu. Sigi-saga igo. Xendra segitu, harri artean, Barrileko leporaino **6 629154 - 4795627**.

Eskuinera joan eta zut-zuta den xendra lerrakorretik igo. Ganean, eskuinera joan eta jo aitzina leku belartsu batean seinaleak segituz.

Gailurrera daraman malda gogorraren beherera heltzean, ezkerrera joan **7 629510 - 4794411** goratasuna 658m.

Gidamarkak segitu harrespiletaraino eta malda gogorra ezkerretik jautsi borda lurreratuetara buruz. Bide zabal batetik joan. Kaskaitza lekura darama. **8 630485 - 4795040**.


Ezkerrean, Bidarraiko mendiez eta Pirinioetako mendilerroaz ikuspegi ederra dago. Eta, eskuinean, Itsasuko herriaz. Eskuinetik segitu, goi-ordokia trebesatzen duen xendratik, Asto leporaino. **9 630652 - 4794270**.

Bidean hain segur pottokak kausituko dituzue. Lepoan, haritz bakartu batera buruz igo. Zuzen joan eta larre arrokatsuan barna gidamarkak segitu. Gain borobildura heltzean, ikuspegi zabaltzen da eta gailurrak ageri dira. Xendratik joan kaskora buruz. Gailurrean **10 629276 - 4793528**, 360°-ko ikuspegi zoragarriaz gozatu ondoan, eskuinera joan. Harresiraino joan eta trebesatu.

Seinale horiak segitu eta Atekgaitzera buruz doan jautsiera arras gogorrari ekin. Atekgaitz errazki ikus daiteke, Atharri eta Arrokagarai mendien artean. Leku arrokatsu bat trebesatu. Hor, lehen, harri pikatuak eta eihera harriak ateratzen eta lantzen ziren. Arroka gutiago den lekuan, malda eztatzen da. Joanekoan hartu duzuen xendratik beheiti joan, kontrako zentzutik beraz, eta abialekuraino.



Itsasuko Herriko Etxeak egina eta inprimatua. Ez lurrera bota.



**D** Itsasu

Ateka/Sanoki aparkalekua

GPS:

628743-4798876



7:15

+1100 m  
-1100 m

24 km

Seinaleak



Huts egin behar ez direnak:

- Bordak
- Eihera abandonatuetako eihera harriak
- Mehatzeko harrespilak
- Atekgaitzeko errebidea
- Euskal kostaldeaz eta Errobiko ibarraz ikuspegi ederrak
- Arditegiak
- Latsia errekaen ur-bilketa gunea



Aro txarra delarik, saihestu.  
Animaliekin urruntasun zerbait atxiki.  
Lekuak errespetatu.  
Ibiltari eta kirolari onentzat bakarrik.



Argibide gehiago:

**Itsasuko Herriko Etxea** - 409 Karrika Nagusia - 64250 Itsasu.

Tel: 05 59 29 75 36 - E-mail: [accueil@itxassou.fr](mailto:accueil@itxassou.fr)

Webgunea: [www.itxassou.fr](http://www.itxassou.fr)